



GERRA ZIBILA ETA FRANKISMOA TOLOSAN

1936. urtetik aurrera, nahiz eta intentsitate desberdinarekin, tolosar guztiak jasan behar izan zuten gerra >6-7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-03-02

VIURTEA 1.376.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Futbol zelaian bezala, bengalak eskuan hartuta joan ziren triki poteoa egitera. NEREA URBIZU

Mitxelena eta Alejo Ezker Pareteko Joko Garbiko garaile

AMASA-VILLABONA Behar-Zana elkarteko bi bikotek jokatu zuten atzoko finala 5



Atzo, Amasan jokaturiko finaleko une bat. A.IMAZ

GORRITXOEN PEÑAREN 20. URTEURRENEKO FESTAN GIRO POLITA

LEITZA Indar Gorri peñak 20 urte betetzen dituela ospatzeko festa egin zuten atzo Leitizan, beste herri askotan egin duten bezala 4

PSE-EEren egoitzan egindako pintaketak gaitzetsi dituzte

TOLOSA Renedo: «ETAren zentsura politikoa kendu behar dute abertzale erradikalek» 5

MARTXOK
7
OSTIRALA

independentzia eguna
musika, kultura
7etan Trianguloan Tolosan



ABSTENTZIOA

» **Uzturretik**

Joxi Imaz

Kosovoren ondoren gure txanda dator. Izan ere, munduan agintzen dutenen, hau da Estatu Batuen, babesa lortzea erraza izango litzateke: superkapitalistak gara, eta euren base militar bat jadanik badaukate gure lurretan (Bardeetako). Hori bai, azken 100

Bizitza

urte hauetako esperientzia ikusita, ez ahaztu eskatzea ez dela nahikoa izango. Espainia eta Frantziako estatuek ez digute guk eskatutakoa eman nahi. Eskatzeaz gain zerbait gehiago egin beharko dugu beraz.

Bitartean, beste gauza interesgarri batzuk ere egin genitzake. Adibidez, literatura irakurri, gozatzeko eta ikasteko. *Printze Txikia* liburua pasarte hau irakurri daiteke: «Negozio gizona hain zegoen lanpeturik, ez baitzuen burua jaso ere egin printze txikia heldu zenean. 'Egun on—esan zion honek—. Zigarroa itzalia daukazu.' 'Hiru

eta bi, bost. Bost eta zazpi, hamabi. Hamabi eta hiru, hamabost. Egun on. Hamabost eta zazpi, hogeita bi, hogeita bi eta sei, hogeita zortzi. Berrito pizteko astirik ere ez. Hogeita sei eta bost, hogeita hamaika. Uf! Beraz, bostehun milioi seiehun eta hogeita bi mila zazpiehun eta hogeita hamaika egiten du'. 'Bostehun milioi zer, baina?' 'Zer? Oraindik hor al zaude? Bostehun eta bat miloi zera... Dagoeneko ez dakit... Hain lanpetuta nago! Ni berriketa gutxiko gizona nauzu, eta ez naiz erregelari aritzen. Bi eta bost, zazpi...». Jorge Luis Borges idazle argentinarrak ere antzeko zerbait esaten digu *Nire bizitza berrito bizi ahal izango banu* izenburua duen poeman: «Nire hurrengo

bizitzan ez nintzateke saiatuko hain perfektua izaten, gehiago erlaxatuko nintzateke. Ez nituzke gauza guztiak hain serio hartuko. Arrisku gehiago hartuko nituzke eta izozki gehiago jango nituzke. Leku guztietara termometro bat, urbero poltsabata eta aterki bateraman behar izaten duten horietakoa izan naiz ni. Baina berrito bizi ahal izango banu gauza gutxiagorekin biziko nintzateke, eta denbora gehiago hartuko nuke benetan gustatzen zaizkidan gauzak egiteko. Berrito bizitzeko aukera edukiko banu, gehiago ibiliko nintzateke hanka hutsik, ume gehiagorekin jolastuko nuke... baina badakizue, 85 urte dauzkate, eta hil-tzen ari naiz.

Berrikuntzez betea ikusi ahal izan da larunbateroko Tolosako azoka

Azoka » Aurtengo lehen ilarrak eta zainzuriak ikusi ziren; atzoko onddo eskaintza ere aipatzekoa izan zen.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna berrikuntzaz betea igaro zen Tolosan. Aurtengo lehen ilarrak eta lehenengo zainzuriak ikusi genituen mahaletan. Nahiz eta harritzekoa izan, eguraldi epelak eta euri gabeziak, produktioa asko aurreratu dute, ia hilabete bat, eta dirudienez, datozen asteetan berrikuntza gehiago izando ditugu.

Aipatzekoa izan zen ere, atzoko onddo eskaintza. Joan den astean aurreneko aldiz ikusi genituen mahaletan, eta atzo kopuruak gora egin zuen. Honekin prezioa behera, eta animazioa gora. 28 euro kiloko saldu ziren.

Berdura plazan ere, eguraldi aproposa asko laguntzen ari da baratarako landareen postuetan, eta asko dira baratzan sartzen direnak beraien landareekin, produktioa ahalik eta gehien aurreratzeko asmoz, horretarako eguraldi egokia dela eta.

» **ATZOKO AZOKA**

Berdura plaza Landareak	Merka.	Gares.
Ziklamena	2,20	5,00
Lobelia	4,50	-
Xarbota	4,00	6,00

Bertako produktuak

Perretxikoak		
Onddoa	28,00	-

Fruta

Errezil sagarra	0,80	8,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak

Babarrun zuria	8,00	10,00
Zainzuria	16,00	-
Ilarra	12,00	-

Gaztak

Ardigazta	14,00	18,00
Gazta berria	16,00	-

Lehen eta orain

Nola aldatu da Pasmus urteen poderioz?

ZIZURKIL • Pasmusena Zizurkilgo lekurik esanguratsuenetako bat dela esan daiteke. 1885. urtean eraiki zen Pasmus etxea, beraz, baditu urte batzuk. Jose Mari Zaldia eta Bautista Beitia senar-emazteak eta euren bederatziz seme-alabak Amasako Pasmus baserrian bizi ziren. Hura saldu eta Zizurkilgo lur zati bat erosi zuten, eta bertan eraiki zuten Pasmus etxea. Hala, jattetxea ere ireki zuten gero, eta horretaz gain, logelak ere bazituzten. Argazkian orain dela urte batzuk Pasmus tabernak nolako itxura zuen ikus dezakegu. Bitxikeria gisa, tabernaren gainean, bigarren solairuan zegoen dentistaren kartela ere ikus daiteke.

Beheko argazkia, gaur egungoa da. Argazkian aldatetako nabariak dira urteek aurrera egin ahala; esaterako tabernaren terraza eta oinezkoen bidea. Taberna bera ere asko aldatu da sortu zutenetik. Azken berrikuntzak duela hilabete batzuk egin zizkioten, izan ere, eraberrituta zabaldu zuten berriro ere taberna jattetxea.

ZIZURKIL: ALDAKETA HAIZEAK/AIMAZ



Hilberria

ANDONI AGIRRE LARRAÑAGA

Atzo hil zen 75 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Be-deinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere arima zuzendaria: Juan M^o Olaetxea; emaztea: Miren Aranburu; seme-alabak: Bakarne eta Ibon Lopetegui, Agustin eta Maika Barreal; bilobak: Aritz, Unai, Eneritz, Garazi; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otortu zituen eskatzen dituzte eta arren etor zaitzetea GAUR IGANDEA, arratsaldeko 18:30ean, Mikel Goiainguren parrokian elizan, gorpua bertan dela egin-go den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



LAZKAON,
2008ko
martxoaren 2a

Hilbidea: Gurutze 3-1C
OHARRA: Gorpua Beasaingo GOIERRI Beilatokian egongo da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA n jarr
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

DONOSTIALDEKO ENPRESA BATEK KOMERTZIALA BEHAR DU (Erref. Bt 08_1)

Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna duen pertsona baten bila gabiltza. Esperientzia izatea ez da beharrezkoa, baina kontuan hartuko da antzeko lanetan eskarmentua izatea. Ezinbestekoa da euskaraz jakitea eta gidabaimena eta autoa izatea.

Aukeraturako pertsonaren egitekoa hainbat produktu saltzea izango da, eta etorkizun interesgarria duen proiektu berri batean parte hartzeko aukera eskainiko zaio.

Lan baldintzei dagokienez, lan kontratua eskaintzen da, gizarte segurantzarekin, eta, soldata finko interesgarriaz gain, salmenten arabarabako komisioak ere izango ditu.

Curriculum Vitae zehatza bidali martxoaren 10erako gizabaliabideak@jarduna.net
HELBIDE ELEKTRONIKORAK. Ez ahaztu erreferentzia zehatza.

Martxoak 8, aurten landa eremuan

» Iritzia

Onintza Lasa

Tolosako Berdintasun arloko zinegotzia

Martxoak 8. Egutegian esanahi berezia duen data, gizon eta emakumeen arteko berdintasunean sinisten dugun guztiok ospatu beharreko eguna: Emakumearen Nazioarteko Eguna. Egia da urte osoan zehar egutegiak nazioarteko egun asko gordetzen dituela, bakoitza bere aldarrikapenekin, eta egia da, baita ere, batzuetan aldarrikapena, borroka eta lana egun zehatz horietara mugatzeko arriskua dagoela. Hitz batean esanda, folklore hutsalean erortzeko arriskua.

Berdintasunaren aldeko alda-

rrikapena eta lana ezin dira egun bateko kontuak izan, egunez egun landu eta borrokatu beharreko lorpenak baizik. Tolosako Udalean argi dugu bidea urratsez urrats egiten dela eta horretan ari gara, buru-belarri, duela mende bat New York-eko lantegi bateko emakumeek beren lan eskubideen alde hasitako borrokari jarraituz. Beraiek eraikak izan ziren greba egiteagatik, lan-baldintza duinen alde oihu egiteagatik, eta geroztik asko eta asko izan dira emakumeen eskubideen defentsan ari eta ari diren-garen emakumeak eta gizonak. Duela mende bateko aldarrikapen hurra emakumezkoen boto-eskubidearen aldeko mugimenduari, sufragismoarekin, lotuta zegoen. Izan ere, emakume-

ontzat ez da erraza izan berez dagozkigun eskubideen aitorza lortzea. Alderantziz, bakanka eta asko kostata egin dugu bide hori.

Bidea oso luzea izan da gaur egundaino iristeko eta oraindik orain, XXI. mendean jada, badago zer egin. Lan berbera egin arren soldata ezberdinak izaten dira askotan gizon eta emakumeentzat, eta desoreka horretan emakumezkoak gara galtzaile ateratzen gare-nok. Berdin botere-guneetan, erabakiak hartzen diren postuetan, enpresa pribatuetan zein publikoetan, urria baita oraindik emakumeen presentzia. Emakumearen presentzia areagotzen da, ordea, etxean, ohikoa delako etxetik kanpo lan egiteaz gain etxeko lanen zama ere bere gain hartzea, amaitu

ezein lan-jardunaldi bikoitzak egin.

Desoreka horren zerrenda luzea da, ia amaigabea. Komunikabideek askotan zabaltzen duten emakumearen irudia eta papera, hizkuntzaren esamolde iraingarriak... eta, nola ez, ezinbestean aipatu, salatu eta gaitzetsi beharreko indarkeria matxista. Eguneroko ditugu hedabideetan indarkeria mota honen adibideak eta, instituzio publikoak emakumeak babes-teko gero eta neurri gehiago hartzen ari diren arren, gizonzkoek erasotuen eta hildakoen kopurua gora doa etengabe. Esaterako, lau emakume hil dira berriki, egun berrean, espainiar Estatuan, beren bikote-kideek erahilak.

Guresalaketak ozena izan behar du derrigorrez, indarkeria kasu guztiak beti lagarriak diren arren, are lagarriagoak direlako itzalean, etxeko zokoan ezkutaturik,

gertatzen direnak, bakardadeak eta isolamenduak kasu horietako biktimak are ahulago bihurtzen baititu.

Aurten, hala ere, emakumezkoen beste errealitate bat plazaratzea erabaki dugu Tolosako Udalean, normalean hitzaldietan aipatzen ez dena eta estatistiketan kanpo gertatu ohi dena. Landa eremuan, nekazaritza arloan, bizi eta lan egiten duten emakumezkoen egoeraz ari naiz, beren arazo eta behar espezi-fikoetat. Askotan urrun samar gertatzen den emakume hauen errealitate gerturatu eta ezagutzera eman nahi dugu, eta horretarako beren bizimoduak, beren arazoak, beren beharrak islatuko dituen argazki-erakusketak bat antolatuko dugu, iraganen zein gaur egun nekazaritza arloan diharduten emakumeen lana aitorzeko asmoz. Gonbidatuta zaudete guztiok!

Gutxinaka-gutxinaka pausoak emanez

» Iritzia

Mentxu Julian

Villabonako gizarte langilea

Mila bederatzehun eta zortzigarren urteko martxoaren 8an Estatu Batuetako fabrika bateko emakume talde bat grebara joan zen, emakumeen eskubideak aldarrikatzeko.

Urte hartan hasi zuten borro-

kak jarraitu egin behar du, emakume eta gizonen arteko berdintasuna eskuratu arte. Emakume askok ezkutuan euren eskubideen alde egindako lanari eta esfortzuari esker, berdintasunaren bidean aldaketa sozialak eman dira azken urteotan.

Alorguztietan diskriminazioak jarraitzen duen bitartean, oraindik ere jerarkizatutako gizarte batean bizi garela ondorioztatzen

da, non emakumeari ardurak finko batzuk ezartzen zaizkion etxebizitzaren alorrean, eta gizonazko-ari, berriz, alor publikoan.

Berdintasunaren Legeak bide honetan lan egiteko betebeharrak instituzionalak finkatu egiten ditu.

Udalek ekintza positiboak dartzaten neurriak bilatzen ditugu, alde batetik, pertsonen lan eta familia munduko adiskidetzera-

ko baliabideak eta zerbitzuak finkatuz; Bestetik, genero arrazoiengatik ematen diren diskriminazio egoerak antzeman eta hauek arazuteko bideak hartuz. Hala-ber, emakumei informazioa bantzen diegu baliabide eta programa ezberdinen inguruan, euren eskubideak izan ditzaten lortze aldera.

Udaletik eta pasa den urtean emakumei zuzenduriko tailer

baten bitartez, emakume talde bat ibiltzen hasi da, euren keza guztiak elkarrekin banatzeko gune bilakatu delarik. Espazio bat emakumeek eurek azaltzen duten bezala, «non eraikitzen ikasten dugun, eta protagonista zuzenak ematen dituzten espazioak». Era hone-tan, gutxinaka-gutxinaka emakume eta gizonaren arteko berdintasunaren bidean pausoak ematen lortzen dute. Hain zuzen ere, haiek zehaztuko dute egin beharreko ibilbidea, eta Udaletik beharrezkoa duten kolaborazioa eta laguntza lutzatuko zaie.

Eredu patriarkal honek itotzen gaitu!

» Iritzia

Maria Garcia

Tolosaldeko Bilgune Feminista

Euskal emakumeok gure etorkizun indibidual eta kolektibo modu askean erabakitzeko eskubidea mugatua dugu. Batetik, gure herriko zatiketa administratiboak eta herri izaeraren ukazioak eta bestetik sistema patriarkalak ezarritako mugek, Euskal emakumeok egoera antidemokratiko batean bizitzera garamatzate. Estatu frantsesean, Sarkozyren eskuinera norabideak eta hemendik eratorri daitezkeen politika atzerakoiek zein estatu espainolean, edozein koloretako gobernu egoera ere, indarrean mantentzen diren botere faktiko atzerakoi eta ultra kontserbadoreek emakumeen eskubideetan eragin zuzena dute (Opus Dei, eliza, sistema juridiko usteldua...). Aipagarriak lirateke, azken hila-beteetan egondako apezpikuen martxak, abortuak praktikatzeko dituzten klinika pribatuen krimi-

nalizazioa, hainbat emakume orain urtebete uestez abortatzeagatik deklaratzera deitua izana eta beste abar luze bat. PSOEren gobernutik neurri anitzak bideratu dira intentzio oso desberdinekin (indarkeri sexistarekin amaitzeko legea, homosexualen ezkontzarako eskubidea edota abortu eskubidearen inguruan egindako promesak) baina ez dira arazoaren muinera joan, egoerak iraunaraztea baino ez dute ekarri.

Familia eredu tradizional eta hegemonikoaren aldeko hautua garbia da eta jendartearen, harreman eredu bakar eta nagusi bezala agertzen zaigu hau. Sexuen arteko botere harremanek emakumeon dependentzia emozional eta ekonomikoa bultzatzen dute. Amatasuna derrigorrezko egiten duen eredu da hau. Heterosexualitate sexualitatea bizitzeko aukera bakar bezala erakusten digun ereduari. Emakumeak rol tradizionalari erabat lotzeko egindako ereduak.

Egoera honen ondorioz, euskal

emakumeok, gure gorputza, elkar bizitza eta harreman afektiboaren inguruko erabakiak hartzeko askatasun falta dugu. Ez dugu heziketa sexual integral bat bermatua. Ez dugu aborturako eskubiderik. Honek delitu bat izaten jarraitzen du eta soilik hiru balizko arrazoietan (bortxaketa, amaren osasunaren arriskua eta fetorearen malformazioa) onartzen da. Nafarroan aldiz, abortua ezin da legeak onartzen dituen terminoetan praktikatu, eskubidea guztiz urratua dago.

Euskal emakumeok gure alternatiba eraiki behar dugu emakume eta gizonen artean harreman eredu berriak sortuz. Elkarbizitza erako harreman eta harreman afektibo anitz eta askeak izatea behar dugu, sexualitate hainbat aukera, parekidetasunean oinarritutako harremanak sortzeko bidean indarrak jarri behar ditugu. Gure eskubide sexualen aldeko lanean jarraitu behar dugu. Plazererako, harreman sexual askeak izateko, heziketa sexual integrala jasotzeko eskubidea dugu. Eskubide

erreproduktiboak berma daitezkeen indarrak bildu behar ditugu. Gure gorputzaren gaineko erabakiak hartzeko askatasuna borrokatu behar dugu. Ama izan edo ez izan erabakitzeko eskubidea eta amatasun eredu libreki hautatzekoa. Abortua libreki eta dohain izateko eskubidea dugu.

Mugimendu feministari esker lortutako hainbat lorpen kolokan dauden honetan, emakumeen eskubideen aldeko borroka aktibatuzko beharrea aurkitzen gara. Mugimendu feministaren aliantzatik abiatuta, Euskal herriko emakumeen eskubideen karta oinarri hartuta, gure eskubideen al-

deko borrokan indarrak jarriko ditugu.

Martxoaren 8a, hau guztia irudikatu eta aldarrikatzeko eguna da. Horregatik Tolosaldeko Bilgune Feministatik antolatutako ditugun ekimenetan parte hartzera dei egiten dizuegu. Baina gure borroka ez da egun horretara soilik mugatuko. Egunerokotasunean landu beharreko borroka da, txikitasantetik hasita. Ideologi eta praktika feministak bakarrik ekarriko dute euskal emakumeon askatasuna eta bide horretan, datorren apirilaren 12 eta 13an egingo diren IV. Jardunaldi feministetan parte hartzeko deia ere luzatu nahi dizuegu.

Euskal Herri feminista gure borroka bidez eraikiko dugu. Gora borroka feministak!

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Txakurrak.** Yorkshire (toy) arrazako 2 txakur saltzen dira. Pedigiararekin. Arra: 900 gramo. Emea: kilo bat eta 250 gramo. Interesatuak dei dezatela

ondorengo telefono zenbakira: 618 95 32 12.

■ **Trikitixa.** Egoera onean dagoen trikitixa salgai. Interesa dutenek dei dezatela 669 67 36 49 telefono zenbakira.

Indar Gorri peñaren 20. urteurrena herrian eta Gaztetxean ospatu dute

Leitza » Talde nafarraren jarraitzaile sutsuenak Atekabeltzen elkartu ziren; poteoaren ondoren, kontzertuak izan ziren.

NEREA URBIZU

Indar Gorri peñak 20 urte bete dituela aitzakia hartuta atzo Leitza Iruñea aldetik 40 bat lagun etorri ziren autoetan. Leitza Txaragorri peña da nagusia Osasunako jarraitzaileen artean eta hauekin eta beste hainbat herritarrekin bat eginek festa giroan murgildu ziren.

Batzuk dagoeneko bazkaltzera etorri ziren Leitza eta ordurako giroa zeuden. Halere, hoberena etortzekoa zen: ongietorri ofiziala Atekabeltz Gaztetxean eta gaua.

Hasiera batean trikipoteoa egin behar zuten herrian barna, baina azken momentuan, Unai Olano



Cadizetik (Espainia) ere hurbildu zen atzo jendea Leitza. N. URBIZU

Txaragorri peñako lehenakariak argitu bezala, «kale egin digu, eta ez ginen trikitixarekin aritu. Hala ere, tabernetan poteatzen aritu ginen».

Gauean Rebeka Puesta, Mr. Moshing, Dkuajo eta Memo taldeak izan ziren Atekabeltzen.

Leitzaik betiko Sadarrera

Osasunako 15 bat jarraitzaile leitzar (beste askok bere kasa ere joateko ohitura izango dute, noski), talde gorriak Iruñean jokatzeko duenean hara joaten dira eta Indar Gorriekin elkartzen dira han. «Giro oso polita izaten da denen artean. Indar Gorri Leitza aukuratu du beste herri batzuen artean bere 20 urteak ospatzeko, hagitzezaguna da Euskal Herrian leitzarren grina eta animoa kirolean eta beste hainbat ekitaldietan.

Indar Gorri denbora gutxierekin abixatu zituen leitzarrak herri-za zetoze, eta horregatik ez dute gauza gehiagorik antolatu. Bazkariak, eta poteoak, dena den, gozatzeko aukera eman zuten futbolzale gorriek. Ea taldeak atzoko indargogo horien uhinak somatzen dituen, behar den dago eta.



Abstentzioaren aldeko ekitaldia egin zuten Karrapen

LEITZA » Herenegun iluntzean ezker abertzaleak ekitaldi oparo bat antolatu zuen Karrapen. Herritar ugariaren aurrean, txalapartak ongietorria eginez, DVD emanaldi bat ikusi, eta Zubieta, Goldaraz, Goikoetxea eta Elizegi presoak omendu zituzten, dantza eta guzti. Ondoren, hauteskudeetan abstentzioa aktiboa eskatu zuten. Gonbidatu berezia izan zuten arrazoiak emateko: Iruñeko EAE-ANVren zinegotzi den Marine Pueyo. n.u.

Auzoz auzo abstentzioaren aldarria

AMASA-VILLABONA » Amasan abstentzioa eskatu zuten kartelen bidez, martxoaren 9ko hauteskudeei begira. Bihar 19:00etan Arroa-Errota Flemingo plazan berdina egingo dute, abstentzioaren aldarria, hain zuten. Etzi, berriz, Larrea plazan bilduko dira. A. IMAZ

AMASA-VILLABONAKO Martxoak 8

12:00etan
Villabonako Erreboten plazan,
KONZENTRAZIOA

STOP emakumeen hilketei, beldurrari eta erasoari

BAI berdintasunari, eskubideei, soldata duinei, askatasunari

2:00etan
Loatz Musik Eskolan,
gela balioanitzean
BAZKARIA

Ondoren dantzaldia musikaz alaituta

Ondoren trikitixak alaituta
Triki-poteoa kaleetan zehar

EGITARAUA

Emakume Langileen Nazioarteko Eguna

Txartelak alde zuretik salgai:
Larrea, Iratzen, Amasa, Kixubi, Amasa Iturri-Goxo



Kultur Asteko ibilaldian jende gutxi

ANOETA » Ez ziren asko animatu atzo goizean mendi ibilaldian, Asaba zaharren baratzerara joateko, baina joan zirenek asko gozatu zuten bideaz. Anoetan hasi eta Alkizara joan ziren. Bide erraza, eta ederra. A. IMAZ

Xabier Mitxelena eta Jon Alejo Gipuzkoako Txapeldun

Amasa-Villabona » Behar-Zana elkarteko bi bikote aritu ziren atzo, Amasako pilotalekuan jokatu zen Joko Garbiko finalean.



Gipuzkoako Joko Garbi Txapelketaren Finala Amasan. ASIER IMAZ

ASIER IMAZ

Amasako pilotalekuan jokatu zen atzo Gipuzkoako Ezker Pareteko Joko Garbi Txapelketaren finala. Xabier Mitxelena eta Jon Alejo 40-33 garaitu zituzten Igor Alejo eta Segio Sanchez. Urdinak aurretik hasi baldin baziren ere, partida erdialdean berdinduta ibili ziren bi bikoteak. Amaieran gorriek aurrea hartzea lortu zuten, Jon Alejo tantua amaitzen bikain asmatu ondoren.

Behar-Zanako bi bikote

Finalera Behar-Zana elkarteko bi bikote iritsi ziren eta lehia polita eskaini zuten Amasan. Behar-Zana Ieko Xabier Mitxelenak eta

Jon Alejo eta Behar-Zana 2ko Igor Alejo eta Sergio Sanchezek.

Guztira bost taldek hartu dute parte, beste hirurak Zubietakoak. Bost bikote hauetatik lehen biak,

Behar-Zana elkartekoak, finalerako txartela lortu zuten. Ligaxkan finaleko bi bikoteek elkarren aurka jokatuak ziren, orduan, 40-38 irabazi zuten Mitxelenak eta Alejo.

Tolosako PSE-EEren egoitzan pintaketak egin dituzte

A. IMAZ

Tolosako PSE-EEren egoitzaren kanpoko orman os vamos ha votar de E.H. Faxistak! eta E.H.-ri iruzurrik ez! jartzen zuten pintaketak agertu ziren atzo. Oscar Renedok, Tolosako udaletxeko PSE-EEren bozeramaileak, «egoitzak jasan-dako eraso gaitzetsi» zuen.



Tolosako PSE-EEren egoitza pintaketekin agertu zen atzo. HITZA

«Derioko zinegotziak bezala»

Oscar Renedok «Tolosako abertzale erradikalei» deia egin zien, «Derioko (Bizkaia) zinegotziak bezala jokatzeko» eskatuz, «Tolosan ere errebeldia ekintza bat behar dugu, bozala eta ETaren zentsura politikoa kendu behar dute abertzale erradikalek».

Horretaz gain, «euren izenak Tolosako ormetan» nortzuk jartzen dituzten badakitela esan zuen.

Ekintza polizialaren alde

Azkenik ETaren aurkako erantzunik onena, «ekintza poliziala» dela esan zuen; «euskaldunen eskubideen alde ez dugu atzerako urratsik emango, euskaldunek ba-

kean bizitzea eskatzen dute, lehergailu eta lepozurrean tirorik gabe».

Renedok «mehatsuen aurrean atzera egingo» ez dutela aipatu zuen, «bizilagunen arazoak konpontzen» jarraituko dutela esanaz.



Telefonicaren aurkako eraso

VILLABONA » Ezezagunek HITZaren erredakziora bidalitako mezu batean, Villabonan Telefonicaren aurka egindako erasoaren ardura hartu zuten atzo: «Telefonicaren hirurik txikitu ditugu, Euskal Herriaren borroka eta kolaboratzaileei kanpaina egiten laguntzeagatik eta hauek prestatzen ari diren iruzurra salatzeke. Iruzurrari erantzuteko modu onena abszentsioa bozkatzea da». HITZA

Laburrak

Bizikleta bira bihar Haur Eskolaren gaiaren inguruan

IBARRA » Uzturpe Ikastolak 900 herritarren sinadurak bildu ditu Haur Eskola bere gain hartzearen alde. Sinatu dutenei eskerrak eman dizkie eta Ibarra ikastolaren alde, herriko hezkuntz proiektu bakarra lelopean bihar bizikleta bira egingo dute Ibarra. 17:30ean abiatuko dira eta bertan parte hartzeko deialdia egin du Uzturpe Ikastolako Errektore Kontseiluko gurasoek.

Berritze lanak amaituta inagurazioa gaur 12:30ean

ORENDAIN » Jasokundeko Amaren eliza gaur inauguratuko dute. Bertan Donostiako (Gipuzkoa) go-tzaia, Juan Mari Uriarte izango da. Berritze lanak amaituta, 12:30ean meza ospatuko dute. Mezaren ondoren Eltxoa elkartean hamaiketa-koa izango da. 600.000 euro kostatu da eliza berritzea eta erdia Jose Juan Gonzalez de Txabarrik (Diputatu Nagusia izandakoa) bere dirupoltsatik eman zituen.

Euskal Herriko errepide mapa

- Euskarazko toponimia
- Bide sare berriak
- Bidaldiak, kilometroak zehazturik
- Herrien zerrenda
- Euskal Herriko hiriburuaren gune turistikoaren plano eta kale izendegi osoak
- Mendi zerrenda

ESKALA 1:200.000
(1 cm=2 km)

Eguneratua!



Martxoaren 8, 9 eta 10ean zure kioskoan

berria 5,95€

aukera ezazu, bizi euskaraz berria

KONPARTSA HERRIKOIA Inude eta Artzainak

ENTSEGUA Astelehenetan (Martxoak 31n lehen entsegua) 20:30etatik 21:30etara
Billabonako Ikastolako ganbaran

BEHAR-ZANA Asteartea (20:30-22:30) eta Ostirala (18:30-22:30)
Billabonako Ikastolako ganbaran
harremanak@oinkari.net - Tel. 660 139 380



SANTIO JAIK 08

Uztailak 27,
igandea
BILLABONA

dantzariak
musikariak
pertsonaiak
danborrada

BARCELNA

Gazte nahiz heldu, denok batera,
egun eder bat igarotzera animatzen zaituztegu!

LAGUNTZAILE

TOLOSALDEKO ETXALDEKOKO HITZA

LAGUNTZAILE

ISILUNEAREN OSTEAN...

Gizartea »

Gerra Zibilak eta Frankismoaren lehen etapak Tolosan izan duen eragina aztertu du Aranzadi elkarteak. Oroimenaren bulegoa zabalik egongo da bihurtik aurrera.

MIKEL ERRAZKIN (ARANZADI ELKARTEA)

Gerra Zibilak eta lehen frankismoak (1936-45) Tolosan izandako ondorioak ikertzen ari da, Tolosako Udalaren ekimenez, Aranzadi Zientzi Elkarteko diziplina anitzeko talde bat, Juantxo Agirre Maulen eta Mikel Errazkinen zuzendaritzapean historialari, antropologo fisiko eta antropologo soziokulturalez osatua. Ikerketaren helburua garai horretan Tolosan gertatu ziren eta ahaztuta egon diren izugarrikeriak argitzea da; izan ere, biktimen memoria isilarazi egin da, baita demokraziaren ezarpenaren ostean ere. Horrenbestez, erantzuna eman nahi zaio biktimek dinamizatu duten eta atzera begiratzea, iragana argitzea eta luzaroan ahaztuta izan direnei justizia egitea eskatzen duen mugimenduari. Azken finean, oraindik ere irekita dagoen zauri morala duintasunez itxi nahi da eta gerrako biktimen senitarteko guztiei testuinguru historiko hori zientifikoki dokumentatzeko bitartekoak eskaini nahi zaizkie.

Giza eskubideen urraketak

Tolosan, Gerra Zibilean (1936-39) giza eskubideen urratze ugari gautatu ziren; izugarrikeria horiek, gainera, ez ziren 1936 eta 1939 artean bakarrik gertatu, denboran luzatu ziren. Behin matxinoek garai-pena aldarrikatu ostean, galtzaileek errepresio bortitza jasan behar izan zuten. Diktadurak iraun zuen urteetan era anitzeko eta intentsitate ezberdineko giza eskubideen urraketak izan zirela ahazterik ez dagoen arren, Gerra Zibileko oroimenak, orduan gertatutako izugarrikerien zein ostean galtzaileek jasan zuten errepresio bortitzaren oroimenak, bizirik iraun zuen gatazka bizi izan zutenen gogoan. Ez hori bakarrik, oroitzen zuten diktadorearen heriotzaren ostean demokraziarako trantsizioaren protagonista izan zirenen gogoan.

Garai hartan egindako hilketako asko gauze egin ziren, heriotza haien egiaztagirik bat ere utzi gabe, halako moldez non biktimen senitartekoei zailtasun handiak izaten baitzituzten heriotzak egiazteko edota hilobi komunitan askotan lurperatuak izan zi-



Burgoseko kartzelatik tolosar ugari igaro zirela dokumentaturik dago. Argazkian agertzen direnak itxura onarekin, hau da, dotore jantzita trajea, alkandora eta zapatekin, ilea eta bizarra ederkiki moztuta, badaude ere, honek ez luke kartzelako eguneroko bizitza islatuko. Irudi hau gezur edo iruzur hutsa dela esan daiteke, espetxeetako agintariak kanpora begira zabaldu nahi izaten zutena baino ez zen. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA



Tolosako Trianguloan, Frankisten aldeko hildakoen omenezko monumentua ikus dezakegu. 70. hamarkadara arte iraun zuen, izan ere, garai horretan lehergailu batek deuseztu zuen. Monumentuarekin batera, San Andres gurutzea, Karlsten sinbola ikus dezakegu, eta baita falangearena ere. Bando Nazionalaren aldekoen oroimenezko ikurrak izaten ziren beti nagusi herrietako plazetan. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

ren gorpuzkinak aurkitzeko. Horrelako kasuetan, *gorriak* delakoan emazteak, alargunak edota alabak errepresalei aurre egin beharrean kausitzen ziren soil-soilik dolua ekartzeagatik, mota guztietako abusua pairarazten zizkietelarik.

Tolosar guztiek jasadako gerra

1936ko uztailetik aurrera tolosar guzti-guztiek, nahiz eta intentsitate ezberdinez, jasan zuten gerra. Heriotza, hondamendia, ihesa, deportazioa eta erbestea XX. mendeko gatazka sozial mingotsenaren ezinbesteko ezaugarri izan ziren. Tolosa, noski, ez zen egoera lazgarri horretatik kanpo geratu; ez hori bakarrik, bere kokapen geografiko-estrategikoa zela-eta, gatazkan erabat murgilduta izan zen lehen egunetik bertatik.

Bereizketarik gabeko bat bateko izuikararen garaia beste izuikara legezko edo formal batek jarraitu zion, halako moldez non, epaiz kanpoko exekuzioek aurrera jarraitu bazuten ere, horiei legezko-tasun-eitea ematen saiatu baitziren. Alde nazionalen, gerra-egoera aldarrikatu ostean, auzi-bide gehienak epaitegi militarren eskuetan geratu ziren, eta eurak arduratu ziren Errepublikako legezko Gobernuari leial iraun zutenak

Heriotza, hondamendia, ihesa, deportazioa eta erbestea ezinbesteko ezaugarri izan ziren

Matxinadaren aurka egin zutenak zigortzeko promulgatuak izan ziren lege berezi mordo batek ordezkaturik

militarki matxinatzeagatik epaitzeaz, presaka instruitutako berme judicialik gabeko gerra-kontseiluaren bidez. Espediente militarren azterketak irizpide orokorrak jarraitu gabe tartekatutako epai militarrek izan zirela esatea garrantzua; aro eta leku berean eta ardua bera izan zutenei sententzia ezberdinak ebatzi baitzizkioten.

Errepresioaren instituzionalizazioa

Nazionalen garaipenarekin errepresioaren instituzionalizazioa gertatu zen, matxinadaren aurka egin zutenak zigortzeko promulgatuak izan ziren lege berezi mordo batek ordezkaturik. Erantzukizunen Politikoen Legea eta Masoneria Erreprimitzeko Legea, esaterako, helburu errepresioekin erabili ziren legeetako bi baino ez dira; erlijioa, aberria, instituzio eta gizarte-armoniaren aurka *idea desagileak* erreitzen zituztenei eragiten zien. Legean jasotako isun ekonomikoekin bate-



Tolosan, gerraren une batean, soldaduak lubakietan. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA



Tolosako Plaza Zaharrean, garbiketa kulturalaren adibide bat. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA



Gasteizko artxiboan topaturiko argazkia. Tolosara frankistak sartu ziren unea. ARANZADI



Gerra Zibila jasandako guztiek gosea aipatzen dute. Irudietan, 1940. urteko janari kupoiak. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA



Frankistak noiz sartu ziren gogoratzen zuen armarría udaletxean topatu zuten hau garbitzen ari zirela. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

» DATUAK

- Araztutako irakasleak. 33.
- Apaiza zigortuak. 13.
- Batallon Disciplinario de Soldados Trabajadores (lan behartuak). 120.
- Baztertutako irakasleak. 3.
- Bonbardaketetan hildako zibilak. 4.
- Borrokan hildakoak. 364.
Banda Nazionala: 101.
Banda Errepublikarra: 141.
Tolosan hilak: 133.
- Errefuxiatuak. 280.
- Ezko Gudarosteko gudariak. 698.
- Fusilatuak. 95.
Banda Nazionala: 17.
Banda Errepublikarra: 76.
Tolosan fusilatuak: 19.
- Gerra Kontseiluan prozesatuak. 476.
- Harrera zelaietan atxikiak. 64.
- Itzultzaile Sindikaletako kideak (UGT, CNT). 58.
- Kartzelan hilak (Saturraran, San Cristobal). 3.
- Kartzelaratuak. 1.178.
Tolosan: 938.
Tolosarrak: 602.
- Kargugabeturiko Tolosako Udaleko langileak. 43.
- Klasifikatutako erreklutak. 574.
- Kontzentrazio esparruetan zigortuak. 122.
- Mobilizatuak. 449.
- Mutilatuak. 16.
- LRP erresponsabilitate politikoa egotziak. 38.
- Ondasunak desjabetuak. 41.
- Soldaduak. 1.593.

Hobi komunaren prospekzioa eta mugaketa, espazioak adierazteko, etorkizunean izan daitezkeen lurperatzeak edo aldatutako sailheste-ko eta oroigarriak jartzea gune horiei duintasuna emateko.

Gerra bizi izan zuten edo une ikaragarri horrekin lotutako esperientzia baliagarriren bat ezagutzen duten pertsonen testigantza grabatzea. Errepresioa jasan zuten biktimek edota horien zuzeneko senitartekoei kolektibo handia osatzen dute eta asko dute eskaintzeko.

Oroigarriak jartzea biolentzia politikorekin lotutako lekuetan (hobi komunak, espetxeak, fusilamenduak izan ziren tokiak).

Bulegoa Aranburu jauregian

Informazio eskaerei erantzuna eman asmoz, herritarrei arreta emateko bulegoia zingodan zabalik bihurtik aurrera, eta apirilaren 11ra arte. Aranburu jauregian egongo da zabalik, astelehenetan 16:00etatik 20:00etara, asteatetean 09:30etik 13:00etara, eta ostegunetan 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

@ Zurea da hitza. Eskualdeari buruzko berriak, kekak, hausnarketak, iradokizunak... sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak *Zurea da hitza* izeneko atalean. Zure datuak ere sartzeko komeni da:

www.tolosaldeko-hitza.info

ra, Estatuko Administrazioako funtzionarioen artean, judikaturan eta hezkuntza-erakundeetan egindako arazketa-lana da azpimarratzekoa, batez ere maisu-maistrei, institutuko irakasleei eta ikasleentzako andereñoie erasan zielarik. Marko juridiko berriaren ondorioz, zigortuetako asko bizitzeko baliabiderik gabe utzi zituzten, zokoratuta bizitzera behartuz.

Hilak, desagertuta, exodoa

Gerraren ondorioz, hainbat herritar asko hil ziren Tolosan eta desagertutako kopurua oraindik ere guztiz zehaztu gabe dago. Ehunika herritar noraezean ibili ziren luzaroan eta askok aukera bakarra izan zuten: exodoa. Hirurogei urtez baino gehiagoz, ahanztura izan zen mina jasateko formularik ohikoena. Gainera, diktadura luzeak min hori areagotu besterik ez zuen egin. Gerraren garapena eta frankismoaren ondorioak ez dira aztertu 72 urte hauetan. Diktaduran zein trantsizioan familien barnean geratu ziren gertaera horiek.

Urte askotako isiltasunaren ondoren, gaur egun gero eta ahots gehiagok aldarrikatzen du memoria historikoa. Errepresio horren biktimek Gerra Zibilean exekutatutako herritarrei behingoz errespertzeko aitorza publikoa egitea aldarrikatzen dute, senitartekoen mende erdiz baino gehiagoz isilean jasadako mina eta bidagabetea.

Gerra Zibilaren garapena eta frankismoaren ondorioak ez dira aztertu 72 urte hauetan

keria gutxienez moraliki zuzentzeko ordua dela uste baitute.

Laburbilduz, atxilotaketa masibak, torturaren instituzionalizazioa, eraiketak, desagertzeak, kartzelabaldintza doilorrak, kontzentrazio esparruak, obra publiko eta pribatuaren aritzeko preso politikoen esklabatza, ama errepublikazaleen umeen bahiketak, hautu politikoa errepublikar edota iraultzailearen zutenetatik haratagoko ko-

lektiboen jazarpena eta giltzapetzea, (intelektualak, homosexuallak...) gorrien erakunde eta familiei ondarea espoliatzea, eskala handiko umiliatze eta ostrazismo laborala eta abar luze-zabala.

Tolosa 1936-1945 proiektuak honako helburu hauek ditu: Memoria identitate sozialeko faktore bilakatzea, iraganeko akatsak publikoki aitortuz eta gizarte demokratiko bat sostengatu behar duten balio eta oinarriak berretsiz.

Errepresio frankista jasan zuten pertsona guztien aitortza publikoa sustatzea ezezaguna den informazioa eskainiz eta, zerbitzu publiko bat emanez, eskuragarri bilakatu.

Ahanzturari aurre egiteko prozesu soziala sortzea, bereziki jasadako errepresio dela eta ordainetikoa eta aitortza publikoa jasotzea merezi duten herritarrei dagokionez.

Ekimenaren helburuak

Ekimen horrien bete nahi diren helburu zehatzak honako hauek dira: Eskuragarri dagoen informa-

zio guztiarekin datu-base bat sortzea, errepresio motaren arabera antolatuta eta behar bezala korrelazioan jarrita. Orain artean, Tolosakoak diren edo beren ekintzek Tolosarekin zerikusia duten 1.642 gizarte eragileren gaineko informazioa dokumentatu ahal izan da (desagertutako pertsonak, kartzelaratutakoak, gerra-kontseiluetan prozesatutakoak, Soldadu Langileen Diziplinazko Batailoietan sartutakoak, baztertutako maisuak, postutik kendutako apaizak, bonbardaketetan hildako zibilak, gerran hildakoak, errefuxiatuak, erbesteratutakoak, kontzentrazio-esparruetan sartutakoak, espetxeetan hildakoak, kargugabetutako udal langileak, klasifikatutako errekrutak, gerrako elbarriak, Ardura Politikoen Legea dela-eta auzipetutakoak, ondasunak konfiskatu zitzaizkienak).

Gerraren garapenari eta haren ondorioei buruzko dokumentazioa, gertaerak ahalik eta modu dokumentatuenean ezagutzeko ezinbesteko baliabide gisa.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarra, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Anoeta.** Udalak ipuin marraztuen lehiaketa 8 urtetik gorakoentzat. Lanak ikastolan eta udaletxean utz daitezke.
- **Zizurkil.** Irteera antolatu dute Iparraldera Emakumearen egunean: goizean Biarritzeko Txokolate Museoari bisita eta bazkaria Baionako Trinketean. Izen-ematea, 28 eurotan, Aurrera plazako udal bulegoetan eta liburutegian.
- **Tolosa.** Javier Urkolaren omeneko VII. Herri Duatloia martxoaren 8an, 16:00etan hasita. Izen-ematea, udaletxean, Karlis-en, Shanti Kirolak-en eta Zut-en.

Zinema

- **Tolosa.** *Mimzy mas alla de la imaginacion* filma, gaur, 17:00etan. 19:30ean, *El amor en los tiempos de colera*, eta 22:00etan, *Irina Palm*, Leidor aretoan. Bihar, ikuslearen eguna, *El amor en tiempos de colera* izango da ikusgai, 20:30ean.
- **Villabona.** *El arca de Noe* 17:00etan izango da ikusgai, eta *Amor en tiempos de colera*, 19:30ean, eta bihar, ikuslearen eguna, 21:30ean.
- **Leitza.** *Deseo, peligro* filma, gaur, 19:30ean zinematan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzotz-azoa, 9. 943 67 51 18.
- **Leitza.** Plaza, MT. Elbarren, 36. 112.
- **Bihar**
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
- **Irurzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.
- **Tolosa.** Etxebeste, JM. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



Jusiden obra Et Incarnatusen eskuetan

TOLOSA • Et Incarnatus atzo egun osoan zehar Tolosako lurreamendiko kaperan izan zen, Federico Jusiden azken obra grabatzen. Grabatutakoa telesail baterako izango da. Ez dira lehen aldiz honetan arituak Et Incarnatusekoak, baina prestatzeak lana eman diela ezin da ukatu, gauza ba-

tek ez baitu bestea kentzen. Han zen Jusid argentinarra bera, grabaketa entzuten eta berak nahi zuena pixka bat komentatzen. Migel Zeberioaren zuzendaritzapean zeudenen doinua lasaigarria eta gozoa zen zuzenean, soka garbiak ziren. Grabazioan hala entzungo da, beraz. **ASIERIMAZ**

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker,

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



Zorionak!
Amaia Otamendi (Abaltzisketa).
9 muxu potolo etxeokoen partetik, biharko partez.



Zorionak!
Ugaitz Goikoetxea (Alegia).
Bihar 3 urte. Ondo pasa ta muxu bana aita ta amaren partetik.

txokoa **h**

zozketa 2 sarrera pare

Martxoak 3, astelehena
16:30ean • Tolosako
Beotibar pilotalekuan



irabazleak:

- Angel Errondosoro (Anoeta)
- Amaia Larrarte (Villabona)

**Berasaluze IX - Apeztegia
Cabrerizo - Arruti**

CAPELLAN - PASCUAL
XALA - NALDA III

Retegi II - Argote
Uriarte - Galarza VI

kontzerturako

2 sarrera pare

deitu eta
eskuratu!

Ostirala,
martxoak 7
20:30ean
Tolosako Leidorren



Pedro Guerra